



Euskararen Etxea

EUSKARAZKO KULTUR EKITALDIEN SORKUNTZARAKO HIRUGARREN LAGUNTZA

OINARRIAK

1. Laguntzaren helburuak

- Euskararen Etxeak antolatzen duen “[Hi\(zki\)bridoak, literatura mutanteak](#)” zikloaren bitartez euskarazko kultur emanaldi berriak sortzen laguntzea eta ezagutaraztea. 2020an abiatu zen kultur egitarau horrek literaturaren eta ahozkotetasunaren inguruan ardaztutako zuzeneko ekitaldiak biltzen ditu.
- Disziplina eta adierazpide desberdinetako sortzaileen arteko elkarlana sustatzea eta indartzea.

2. Parte-hartze aukerak

Edozein kultur disziplinan jarduten edo jardun nahi duen oro. Adin nagusikoak izan beharko dute eta lanak banaka zein taldeka aurkeztu ahalko dira. Norbanako edo talde bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahalko du. Aurkeztutakoen artean lan bakarra lagunduko da.

3. Eskatzen dena

Euskara hutsezko kultur emanaldi berri baten gidioa eta emanaldia bera sortzea eta garatzea. Aukeratutako lanaren lehenengo emanaldia 2024ko “Hi(zki)bridoak “ kultur zikloaren baitan eskaini beharko da. Emanaldiak formatu txikian egiteko modukoa izan beharko du, Euskararen Etxeko Berba Aretoan hain zuzen ere. Aretoaren zehaztapenak [hemen](#) kontsulta daitezke.

4. Lanaren zehaztapenak

Lanek originalak, euskaraz idatziak eta aurrez argitaratu gabeak eta saririk jaso gabeak izan behar dute. Baldintza hauek guztiek indarrean iraun beharko dute epaia ematen den unera arte.

Emanaldia helduei zuzendua izango da eta gaia librea izango da.

Lana aurkezteko emanaldiaren inguruko txostena prestatu beharko da. Txostenak 4 orrialde izango ditu gehienez, eta ondorengo puntuak jasoko ditu:

- o Emanaldiaren gaia eta ideia nagusia.
- o Kultur disziplina edo adierazpide desberdinen arteko elkarlanaren azalpena.
- o Gidoiaren lanketan parte hartuko duten sortzaileen profilak, euren izenak zehaztu gabe.
- o Gidoiaren azalpen laburra.
- o Gidoiaren lagin bat, 2 orrialdekoa, ez nahitaez kontakizunaren hasierakoa, baina bai zati bakarra osatzen duena.

5. Lanak aurkezteko epea eta modua

2023ko azaroaren 20an amaituko da lanak aurkezteko epea.

Lanak aurkezteko bide bakarra izango da:

- Posta arruntez: Gutun azal horretan, emanaldiaren txostena eta beste gutun azal txikiagoko bat bidali behar dira.

Gutun azal txiki horren kanpoaldean lanaren izenburua zehaztu beharko da. Eta barruan, berriz, egilearen datu pertsonalak zehaztuko dira (izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa).

Txostenak izenburuz bakarrik identifikatuko dira. Beraz, txostenean ez da zehaztuko proiektuaren egilearen izenik ezta emanaldian parte hartuko dutenen izenik ere.

Ez dira emailaz bidalitako lanak onartuko, lanak baloratzekoan egilearen eta parte hartzaileen anonimotasuna bermatu ahal izateko.

Lanak posta arruntez, gutun azal itxi batean, bidali beharko dira, ondorengo helbidera:

Euskararen Etxea
Agoitz plaza 1
48015 Bilbo
(Bizkaia)

6. Epaimahaia

Bost kidek osatuko dute beka honetako epaimahaia:

- o Eneko Sagardoy
- o Lutxo Egia
- o Haizea Barcenilla
- o Onintza Enbeita
- o Iurdana Acasuso

7. Lanak baloratzeko irizpideak

Hautaketa egiterakoan, ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

- o Kultur disziplina edo adierazpide desberdinen arteko fusioa.
- o Ideiaren, gidoiaren eta formatuaren originaltasuna eta berritasuna.
- o Gizarte mailako ekarpena.
- o Hizkuntzaren egokitasuna.

8. Lanen ordainketa

Hautatutako lanak 3.000,00€ko ordainsaria jasoko da.

Epaimahaiak laguntza eman gabe uzteko aukera izango du, aurkeztutako lanek behar adinako mailarik ez dutela iritzi gero.

9. Epaia emateko epea eta laguntza banaketa ekitaldia

Lanak jaso ostean, epaimahaiak horiek denak aztertu eta 2023ko abenduaren 18an emango du hartutako erabakiaren berri.

10. Lehenengo emanaldia

Lan sarituaren lehenengo emanaldia eta beraz, aurkezpena 2024ko iraila eta Abendua bitartean egingo da Euskararen Etxean "Hi(zki)bridoak" kultur zikloaren baitan.

11. Laguntzaren ordainketa

Lanaren ordainketari dagokionez, %50a irabazle izendatu bezain laster jasoko du laguntzaren hartzaileak, eta beste erdia dagokion epearen barruan lan osoa aurkeztu eta epaimahaiak horri oniritzia ematen dionean. Ordainketa osoa 2024 urtean egingo da.

12. Gidoi osoa prestatzeko epea eta emanaldia aurkezteko prozedura

Bitarte horretan, laguntzaren hartzaileak hasierako proiektua aldatu nahiko balu, epaimahaikideei jakinarazi beharko die egin nahi dituen aldaketan berri.

Laguntzaren hartzaileak bere lana entregatuko ez balu, itzuli egin beharko du jasotako dirua.

13. Emanaldiaren egile eta erabilera eskubideak

Laguntza jaso duten gidoietan oinarrituta sortuko diren emanaldien egile eta jabetza eskubideak sortzaileenak izango dira. Eta Euskararen Etxeak horren aitortza eta aipamena egingo du emanaldiaren euskarri desberdinetan.

14. Azken puntuak

Deialdi honetan parte hartzeak bertako oinarri guztiak ontzat ematea dakar.

Horien ulermenean zalantzarik balego, edo aurreikusi gabeko gorabeheraren bat sortzen bada, epaimahaikoei dagokie erabakitzea eta epaimahaikoek egin ezean, Euskararen Etxeak erabakiko luke.

Laguntzaren inguruko edozein zalantza argitzeko helbideak eta kontaktu-datuak ondorengoak dira:

Euskararen Etxea
Agoitz plaza 1
48015 Bilbo
(Bizkaia)
944 028 081
info@euskararenetxea.eus